

## ESPERANTZA GALDU GABE

Negu gogorra zen hura. Hotz handia egiten zuen. Eta hezea. Hezetasunak gainera hotza areagotzen zuen. Neguak ez zituen gustuko. Hainbat negu igaro zituen txabiske horretan abandonaturik, horietako batzuk oso gogorrak. Baina aurtengo negua, azken urteetako gogorrenetarikoa suertatzen ari zen. Euritsua, elurtsua, hotza, hezea, iluna.

Agian, bere indarrak amaitzear zeuden. Bere buruari esaten zion egoera honek ez zuela luze iraungo, berehala etorriko zirela bere bila eta konpondu beharreko atalak konponduko zituztela. Baina urteak joan, urteak etorri, jadanik ez zuen hain garbi norbait berataz oroitzen ote zen. Ez zuen ideia hori onartu nahi, eta geratzen zitzaizkion indar guztiekin ukatzen zuen errealitatea. Ez, ez zen posible. Ezin zuen jasan abandonatua izan zenaren ideia. Gogorregia zen berarentzat.

Laster udaberria iritsiko zen, eta ondoren uda, eta berarekin batera eguzkia eta beroa. Atsegin zuen oso eguraldi ona, leihotik sartzen zen argia eta eguzki izpiak garai bateko egun zoriontsuak zekarzkie burura. Ondoan zituen bi leihotatik begira igarotzen zituen egunak eta egunak, zerura begira. Han, mugagabeko zeru horretan hamaika ordu izanak zituen, hegan, hainbat urteetan zehar.

Bere lehen hegaldiak gogoratzen zituen. Normandian egin zituen. Radarren lanak egiten zituzten; koadrila osoa aireratzen zen, berrogei bat hegazkin, denak berri-berriak, eta beraiei esker, tropen mugimenduak ikuskatzen zituzten RAFekoek. Pilotuek lehen eskuko informazioa ematen zuten ikusten ari zirenari buruz.

Afrikako Iparraldeko eta Siziliako kanpainetan ere parte hartu zuen. Han-hemenka igaro zituen bere bizitzako lehen hogeita hamar urteak. Oso zoriontsuak izan ziren berarentzat. Ondoren, Indotxinako gerran parte hartu zuen. Tamalez, bere lagun asko gerra horretan hil ziren. Oso lagun gutxi atera ziren bizirik eta geratzen zirenak, mundu osoan sakabanaturik zeuden.

Bera ezin zen kexatu izan zuen zortearekin. Gerra ostean, Gasteiz izeneko hirian hogeita bi urtez hegaldiak egiten aritu zen, Gasteizko aeroklubean. Gerran pasatako urte gogor

haien ondoren, Gasteizen igarotako urte haiek oso lasaiak izan ziren. Aisialdirako hegaldiak ziren.

Hala ere, bere bizitzako garairik zoriontsuena, Altsasuko Carlosek erosi zuenean iritsi zen. Nahiz eta Gasteizko aeroklubean oso une alaiak igaro, eta lagun minak egin, eta nahiz eta bertako pilotuak asko maitatzen zuten, ez zen berezia sentitzen. Carlosekin, aldiz, berezia sentitzen zen. Bakarra. Carlos asko maite zuen, eta berarekin igarotako hamar urteak bere bizitzako alaiak izan ziren. Carlosek, berarekin hitz egiten zuen, orduak eta orduak ematen zituen bera zaintzen, eta dotore jartzen. Berarekin egin zituen hegaldirik politenak, Nafarroa osoan zehar, milaka argazki aterez. Milaka orduko hegaldiak.

Baina, halako batean, trastuz beteriko txabiske ilun, heze eta zikin batera eramane zuten. Ustez, azterketa handi bat egin behar zioten, baita motorra berrikusi ere. Carlosek, momentu horretan konponketa egin ezin zuenez, eta betiko lekuan tokirik ez zegoenez, hant gorde zuen. Behin-behineko egoera izango zelakoan.

Aitzitik, zain dago. Egun bat, hilabete, urtebete, hamaika urte. Carlos noiz etorriko zain. Desegina. Pieza guztiak sakabanatuta. Gurrpil bat, erabat hondatuta. Hautsez beteriko milaka kaxen atzean. Bakarrik. Ahaztuta. Hasieran, Carlos bisitatzeraz joaten zitzaien; berarekin pixka bat hitz egin eta lastan batzuen ondoren, joan egiten zen. Baina denborarekin, bisita horiek gero eta gutxiago egiten zituen. Eta azkenik, bat ere ez. Hainbat urte isiltasun osoan. Soilik kaxa zikin horiek ekartzen dituzten mutilak, bera ikusten ere ez dutenak.

Egun batean, ordea, txabiskeko atea zabaltzen da, eta hara hor non agertzen den Carlos. Carlos, bai! A ze poza sentitzen duen! Ez da berataz ahaztu, ez. Oraindik maite du. Eta ez dator bera bakarrik, beste bi gizonekin etorri da. Baina, adi: zertaz ari dira hitz egiten? Ez da posible. Berataz ari dira. Bera konpondu eta berriz airean jartzeko asmoa dute. Ai ene, ez da posible! Ezin du sinetsi! Hainbeste urteren ondoren bere bila etorri dira, lehengoratzeko asmoz. Berriz libre izango da. Berrito, Auster MK-IV bat airean, hodeien artean dantzatuko da. EC-AJR. Eco Charly Alfa Juliette Romeo.

**Egilea:** M<sup>a</sup> Jesus Cotrina